# TXOSTENA / MEMORIA

## 05: MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren jarduera eremua eta egitekoak eta horretarako beharrezkoa duen antolaketa ezartzen dute, hurrenez hurren, ondorengo hauek: Diputatu Nagusiaren 2015eko ekainaren 24ko 3/11 Foru Dekretuak (2015eko ekainren 25eko 5/2015 Foru Dekretuaz aldatutakoak), Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoak, 9. artikuluan; eta 2015eko ekainaren 25eko 18/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarrizko departamentu egiturari buruzkoak, 5. artikuluan.

2015eko ekainaren 24ko 3/11 Foru Dekretuaren 9. artikuluak jardun esparru eta eginkizun hauek esleitzen dizkio: garraioak eta plangintza, bizikleta bideen azpiegiturak, lurralde antolaketa eta kohesioa, hirigintza planak sustatu eta gainbegiratzea, lurraldea sustatu eta lurzorua kudeatzea, Foru Aldundiak bere erabilera administratiboetarako behar dituen eraikinak eraiki eta birgaitzea, ondare higiezinaren kudeaketa teknikoa eta Lurralde informazioa

Bestalde, 2015eko ekainaren 25eko 18/2015 Foru Dekretuaren 5. artikuluak depatamentuak antolatzen du bi zuzendaritza nagusietan: Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia eta Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.

## 01 PROGRAMA. DEPARTAMENTUKO ZERBITZU OROKORRAK

Programa honetan, Departamentuko goi-zuzendaritzari eta administrazioaren eta aurrekontuaren kudeaketari dagozkion eginkizunak garatzeko beharrezkoak diren hornidurak aurreikusten dira. Programa honen jarduera ildo nagusia da Departamentuaren programak eta jarduerak bultzatu, koordinatu eta kontrolatzea, behar den laguntza eta aholkularitza ematea eta

## 05: DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

El artículo 9 del Decreto Foral del Diputado General 3/2015, de 24 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones (modificado por el Decreto Foral 5/2015, de 25 de junio), y el artículo 5 del Decreto Foral 18/2015, de 25 de junio, sobre estructura departamental básica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, establecen el ámbito de actuación y las funciones que se atribuyen al Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio y la organización con la que se dota para ello.

El artículo 9 del Decreto Foral del Diputado General 3/2015, de 24 de junio, atribuye al departamento las siguientes áreas de actuación y funciones: transportes y planificación, infraestructuras de vías ciclistas, ordenación y cohesión territorial, fomento y supervisión del planeamiento urbanístico, promoción del territorio y gestión del suelo, construcción y rehabilitación de los edificios de la Diputación Foral de uso administrativo propio, gestión técnica del patrimonio inmobiliario e información territorial.

Por su parte, el artículo 5 del Decreto Foral 18/2015, de 25 de junio, estructura el departamento en dos direcciones generales: la Dirección General de Movilidad y Transporte Público y la Dirección General de Ordenación del Territorio.

## PROGRAMA 01. SERVICIOS GENERALES DEL DEPARTAMENTO

En este programa se contemplan las dotaciones necesarias para el desarrollo de las tareas propias de la alta dirección y la gestión administrativa y presupuestaria del Departa-mento. La principal línea de actuación de este programa consiste en impulsar, coordinar y controlar los programas y actividades desarrolladas por el Departamento, prestar el apoyo y asesoramiento que se requiera, así

departamentuko sistema administratiboak eta informaziokoak hobetzeko jarduerak sustatzea.

Programaren aurrekontuan Departamentuaren gastu komunen zatirik handiena sartzen da. Azpimarra daiteke programa honetan bilduta daudela Departamentu osoaren aplikazio informatikoen sorrera eta mantenimenduari dagozkion gastu guztiak. Programa hau inbertsioak egitekoa ez dela gogoan izanik, onartutako jarraibideak betez, aurreikuspen mailakoak egiten saiatu gara, horrela, programaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren funtzionamendu gastuei aurre egingo diegulakoan.

**MUGIKORTASUNEKO ETA GARRAIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA.**

Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren lan arloan, hiru oinarrizko lan lerro izango ditu: garraioa antolatzea eta sustatzea, Gipuzkoako Bizikleta bideen Lurraldearen Arloko Planak aurreikusten duen bizikleta-bideen sarea garatzea, eta Donostialdeko Metroa bultzatzea.

**10 PROGRAMA. GARRAIOAREN ANTOLAMENDU ETA SUSTAPENA**

Bidaiarien garraioa ondo kudeatzea eta horrela herritarren mugikortasuna, ikastetxe, lantoki, aisialdiko toki eta, oro har, zerbitzuetara joan-etorri erosoak egin ahal izatea kezka garrantzitsu bat da, bai herritarrentzat, bai erakunde publikoentzat.

Garraio publikoaren erosotasuna lortzea bateragarri egin behar da, ordea, garraio sistema iraunkorra izatearekin, eta horrek eskatzen du benetan irmotasunez egitea garraio publikoaren alde eta beraren merkatu kuotaren alde. Horretarako, garraio sistemaren modu eta sare guztiak koordinatzea eta integratzea lortu behar da, ezinbestean.

Horrela, bada, programa hau ardatz nagusietako bat da Departamentuaren jardunean.

como impulsar cuantas actividades conlleven una mejora de los sistemas administrativos y de información del Departamento.

En este programa se presupuestan gran parte de los gastos comunes del Departamento. Cabe destacar que están integrados en este programa todos los gastos referidos a creación y mantenimiento de aplicaciones informáticas de todo el Departamento. Tratándose de un programa no inversor se ha procurado mantener un nivel de previsión ajustado a las directrices aprobadas, con el fin de poder hacer frente a los gastos de funcionamiento necesarios para cumplimiento de los objetivos del Programa.

**DIRECCIÓN GENERAL DE MOVILIDAD Y TRANSPORTE PÚBLICO.**

En el ámbito de la Dirección General de Movilidad y Transporte Público, tres son las líneas básicas de actuación a desarrollar en este eje: la ordenación y promoción del transporte, el desarrollo de la red de vías ciclistas que prevé el Plan Territorial Sectorial de la Red de Vías Ciclistas de Gipuzkoa e impulsar el Metro de Donostialdea.

**PROGRAMA 10. ORDENACIÓN Y PROMOCIÓN DEL TRANSPORTE**

La gestión del transporte de viajeros, esto es, asegurar la movilidad de los ciudadanos y la accesibilidad a los distintos centros de estudio, trabajo, ocio y servicios en general, constituye una preocupación de la ciudadanía y de las instituciones públicas.

El compromiso de garantizar la accesibilidad ha de hacerse compatible con la sostenibilidad del sistema de transporte, lo que requiere una apuesta decidida por el transporte público y por el aumento de su cuota de mercado. Esta apuesta pasa necesariamente por la coordinación e integración del sistema de transporte en todos sus modos y redes.

Por todo ello, este programa constituye uno de los ejes básicos de actuación del Departamento.

2016ko aurrekontu ekitaldian programa honen kontura landuko diren jarduera ildo eta ekintza guztien artean, nabarmendu behar da Mugi sistema egonkortzea, 2013ko martxoan abian jarri ondoren.

Entre las líneas de actuación y actividades que se prevé desarrollar en el ejercicio presupuestario de 2016 con cargo a este programa presupuestario cabe destacar, entre todas, la consolidación del sistema Mugi una vez producida su puesta en marcha en marzo del año 2013.

Programa honetan sartzen da, halaber, beste laguntza mota bat, hau da, ohiko ibilgailuaren ordez indarrean dagoen legeriak ezarritako irisgarritasun baldintzetara egokitutakoa erosten duten taxilariei emango zaiena.

También se incluye en este programa la concesión de ayudas a los profesionales del taxi que sustituyan sus vehículos convencionales por vehículos adaptados a las condiciones de accesibilidad establecidas en la legislación vigente en la materia.

Garraioaren gaian Foru Aldundiak hartuta dituen, eta eman zaion erantzukizunaren arabera Departamentu honek burura eraman behar dituen eginkizunak eta eskumenak hobeto eta eraginkortasun handiagoz betetzeko, programa honen bidez jarraituko da garraioaren alorrean derrigorrezkoak diren ikuskapen lanak egiten.

Asímismo, en orden a un mejor y más eficaz cumplimiento de las obligaciones y competencias que le corresponden a la Diputación en el campo del transporte y que, para su ejecución, han sido encomendadas a este Departamento, este programa continuará desarrollando sus labores obligatorias de inspección derivadas del transporte.

Azkenik, bidaiarien errepide garraioko zerbitzuari dagokionez, azpiegitura bereziak lurraldeari emateko, programaren bidez honako eginkizuna hauek bete nahi dira: Foru Aldundiaren titularitateko bidaiarien garraio publikoaren emakida sarean bazterbideak eta geltokiak eraberritzeko eta handitzeko lanak egitea, eta programa hontean aurreikusten da Foru Aldundiak jarriko duen azken ekarpena Donostiako (Atotxan) autobus geltokiaren lanen proiektua gauzatzeko.

Finalmente, el programa, con el objetivo de dotar al territorio de determinadas infraestructuras específicas al servicio del transporte de viajeros, acometerá la reforma y ampliación de los apartaderos y paradas en la red de concesiones de transporte público de viajeros de titularidad foral, y se contempla en este programa la aportación final de la Diputación Foral de Gipuzkoa a la ejecución de las obras del proyecto de la estación de autobuses de San Sebastián (en Atotxa).

## 11 PROGRAMA. BIZIKLETA BIDEAK

## PROGRAMA 11. VÍAS CICLISTAS

Programa honek Gipuzkoako Bizikleta bideen Lurraldearen Arloko Planak aurreikusten duen bizikleta-bideen sarea garatzen du. Mugikortasun iraunkorra sustatzea da bere helburu nagusia.

Este programa presupuestario desarrolla la red de vías ciclistas que prevé el Plan Territorial Sectorial de la Red de Vías Ciclistas de Gipuzkoa, y su principal objetivo es promocionar la movilidad sostenible.

I. kapituluan azpimarratzekoak dira kontusail hauek: Bizikletaren Estrategia eta bizikletaren erabilera sustatzeko azterlan eta jarduketak garatzeko kontusaila, eta beste kontusail berezi bat, derrigorrezko bigarren hezkuntzako irakasleak trebatzeko programa bat garatzekoa, ikasleei bizikleta eta mugikortasunari buruzko klaseak emateko. Bizikleta bideen oinarrizko sarearen mantentze-lanak eta ustiapenekoak lehengoan

En el Capítulo II destaca la inclusión de una partida destinada al desarrollo de la Estrategia de la Bicicleta y de los estudios y actuaciones de promoción del uso de la bicicleta, así como una partida específica para el desarrollo de un programa de capacitación del profesorado de enseñanza secundaria en materia de movilidad ciclista, de cara a su transmisión al alumnado, manteniéndose el resto de obligaciones de mantenimiento y

jarraitzen dute.

explotación de la Red Básica Foral de Vías Ciclistas.

IV. kapituluan, gainera, kontusail bat gehitu da diruz laguntzeko bizikletaren erabilera sustatzeko Gipuzkoako udalek egiten ari diren jarduketak

Se incluye además una partida en el capítulo IV destinada a subvencionar las actuaciones en materia de promoción del uso de la bicicleta llevadas a cabo por los ayuntamientos del Territorio Histórico.

VI. kapituluari dagokionez, bizikleta bideen proiektuetan eta eraikuntzan inbertitzen jarraitzen dugu.

En lo relativo al capítulo VI, se mantiene el esfuerzo inversor en proyectos y construcción de vías ciclistas.

VII. kapituluan, bidegorrien udal sarea garatzeko bulkadari eusten zaio, partida berezi bat baitago udalei herri eremuetan bizikleta eta oinezkoentzako bideak egiten laguntzeko.

En el Capítulo VII se mantiene el impulso al desarrollo de la Red municipal de bidegorris mediante una partida específica que ayude a los municipios en la construcción de vías ciclistas y peatonales de ámbito local.

**12 PROGRAMA. DONOSTIALDEKO METROA**

**PROGRAMA 12. METRO DE DONOSTIALDEA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoaren proiektu estratekioetako bat da Donostialdeko Metroa bultzatzea epe luzerako inbertsio estrategia baten bitartez, 2030ean anbizio handiko garraio sare publiko metropolitano bat izatera heltzeko. Lortu nahi den helburua da proiektu estrategikoak garatzeko behar diren hitzarmenak sinatzea eta metroaren lurpeko pasantea egiteko obrak hastea.

Uno de los proyectos estratégicos incluidos en el Plan Estratégico de Gestión 2015-2019 de la Diputación Foral de Gipuzkoa es impulsar el Metro de Donostialdea a través de una estrategia de inversiones de largo plazo que permita alumbrar en 2030 una ambiciosa red de transporte público metropolitano. La meta que se persigue es firmar los convenios necesarios para el desarrollo de los proyectos estratégicos e iniciar las obras de la pasante soterrada del metro.

**<u>LURRALDE ANTOLAKETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA</u>.**

**<u>DIRECCIÓN GENERAL DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO</u>.**

Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren lan arloan, Departamentuak garatzen jarraituko dituen lan alor guztietatik hauek hartzen dituena: hirigintzaren eremuko lana; lurralde antolaketarako mekanismo lehen ezarritakoak nahiz berriak sustatzeko eta erabiltzeko lana; eta Gipuzkoako datu espazialen azpiegitura prestatu eta Aldundi osoaren eta, oro har, gipuzkoar gizartearen esku jartzeko lana.

En el ámbito de la Dirección General de Ordenación del Territorio, al Departamento le corresponde continuar las labores que se han venido desarrollando en los campos del urbanismo, de la promoción y utilización de los mecanismos, establecidos o nuevos, de ordenación territorial, de elaboración y de la puesta a disposición de la Diputación en conjunto, y de la sociedad guipuzcoana en general, de una Infraestructura de Datos Espaciales de Gipuzkoa.

Lurralde Antolaketako Zuzendarita Nagusiaren bigarren ardatza da lurzoruaren eta ondarearen antolatzea.

Un segundo eje de la Dirección General de Ordenación del Territorio es el de la ordenación del suelo y patrimonio.

Era berean Foru Jauregiaren eta departamentuen gainerako eraikinen mantentze, kontserbatze eta zaharberritze arkitektonikorako egon daitezkeen beharrak kudeatuko dira.

Asimismo, se atenderán las necesidades de mantenimiento, conservación y rehabilitación arquitectónica del Palacio Foral de la Diputación y otros inmuebles del patrimonio de la Diputación Foral.

Azkenik, Zuzendaritza Nagusi honen esparruan, aurrekontu proiektuak Pasaialdeako badia berreskuratzeko inbertsioak gauzatzea aurreikusten du.

Finalmente, en el marco de esta Dirección General, el proyecto de presupuestos contempla la ejecución de inversiones regeneradoras en la bahía de Pasaialdea.

**20. PROGRAMA. PASAIALDEAKO ANTOLAKETA ETA SUSTAPENA**

**PROGRAMA 20. ORDENACIÓN Y PROMOCIÓN DE PASAIALDEA**

Interes orokorreko portu azpiegitura bat izateak eragina du neurri ezberdinean Pasaia, Donostia, Errenteria eta Lezoko udalerrien hiri izaeran, eta azpiegitura bera ere baldintzatuta dago hiriguneak gertu daudelako. Portu eremuak aukera eremu gisa hartzen dira aspalditik, garai bateko hirigintza garapenetik sortutako akatsak konpontzeko eta zentralitate berria duten areak sortzeko aukera ematen dutelako, ekonomia eta gizartea biziberritze aldera.

Los municipios de Pasaia, Donostia, Errenteria y Lezo se ven afectados en diferente medida por la existencia de una infraestructura portuaria de interés general que afecta a su hecho urbano y que a su vez se ve condicionada por la proximidad de los núcleos habitados. Los espacios portuarios se vienen contemplando desde tiempo atrás como ámbitos de oportunidad para solventar las deficiencias derivadas del desarrollo urbanístico de épocas pasadas así como para permitir la generación de áreas de nueva centralidad en las que se propicie una revitalización económica y social.

Portuak, bestalde, beharrezkoa du bere jarduera hirigintza esparruan txertatzea eta hiriguneekin dituen auzo gaiak konpontzea, eta baita sarbide batzuk bermatzea ere, aldi berean bere jarduerarako egokiak izango direnak eta inguruan nahi ez diren eraginak eragingo ez dituztenak, alegia.

El puerto, por su parte, necesita integrar su actividad en el marco urbanístico y resolver las cuestiones de borde en su relación con los núcleos urbanos, así como garantizar unos accesos que al mismo tiempo sean adecuados para su actividad y no generen efectos indeseados en el entorno.

Pasaiako badiaren inguruaren antolaketari buruz orain gutxi eginiko hainbat azterlanek agerian uzten dute lehen aipatutako udalerrietako plangintzen artean dagoen lotura estua, batez ere Pasaiako portuak bateratzen dituen puntuan. Portuaren ingurua plangintza bateragarrien eremu gisa ezartzen dute Lurralde Antolaketako Jarraibideek berariaz, eta, besteak beste, portuko Plan Bereziak eragina duen udalerri guztiak sartzen dira bertan.

Los múltiples estudios realizados en tiempos recientes en relación con la ordenación del área de la bahía de Pasaia ponen de manifiesto la profunda interrelación entre los planeamientos de los municipios antes citados, y en especial en su punto de confluencia que es el Puerto de Pasajes. Ya en las Directrices de Ordenación del Territorio se establece expresamente como ámbito de compatibilización de planeamientos el entorno de la zona portuaria, incluyendo, entre otros, a todos los municipios afectados por el Plan Especial del puerto.

Esparru horren barruan, portu eremuak aukera eremu gisa hartzen dira aspalditik, garai

En este contexto, los espacios portuarios se vienen contemplando desde tiempo atrás como

bateko hirigintza garapenetik sortutako akatsak konpontzeko eta zentralitate berria duten areak sortzeko aukera ematen dutelako, ekonomia eta gizartea biziberritze aldera.

ámbitos de oportunidad para solventar las deficiencias derivadas del desarrollo urbanístico de épocas pasadas así como para permitir la generación de áreas de nueva centralidad en las que se propicie una revitalización económica y social.

Askotan onartu da Pasaiako udalerria biziberritzeko jardun bereziak abian jarri behar direla eta, horrela, hainbat erakundeek abian jarritako zenbait jardueren artean, lankidetza hitzarmen bat sinatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Pasaiako Udalaren artean 2007ko martxoaren 15ean.

La necesidad de emprender acciones específicas de regeneración en el municipio de Pasaia ha sido reconocida en repetidas ocasiones y dió lugar, entre otras muchas actuaciones emprendidas por diversas instituciones, a la firma de un convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Pasaia el 15 de marzo de 2007.

Geroago, 2008. urtean bidezkotzat jo genuen, Foru Aldundiak nahiz Udalak, 2007an sinatutako hitzarmena agiri honekin ordezkatzea. Agiri honen xedea da bi aldeek sustatzeko eta finantzatzeko konpromisoa hartzen zuten jarduera multzoa jasotzea, berriak zein lehenago hitzartu eta oraindik amaitu gabe daudenak.

Posteriormente, en el año 2008 se consideró oportuno, tanto por la Diputación Foral, como por el Ayuntamiento de Pasaia, sustituir el convenio firmado en el año 2007 por un nuevo convenio, que pretendía recoger el conjunto de actuaciones que ambas partes se comprometen a promover y financiar, comprendiendo tanto las nuevas como aquellas previamente pactadas que no hayan sido aún finalizadas.

Aipatutako hitzarmena maila handi batean bete da. Dena den, han aurreikusitako zenbait jarduera sinatzaileei zuzenean leporatu ezin zaizkien gorabeheren eragina izan dute eta, horregatik, haien finantziazioa birplanteatu egin behar izan da.

Dicho acuerdo ha alcanzado un alto grado de ejecución, si bien algunas de las actuaciones previstas en el mismo se han visto afectadas por incidencias no atribuibles directamente a ninguna de las partes firmantes, lo que ha dado lugar a la necesidad de replantear su financiación.

Esparru horren barruan, 2016ko ekitaldirako aurrekontuetan zuzkidura bat jasotzen da, hasteko, Pasaialdeako badia biziberritzeko inbertsioak burutzeko, 2009an hartutako konpromisoak kitatzearren. Dena den, ikusita egin bidean dauden jarduerak ez direla nahikoa biziberritze xede hori lortzeko, ezinbestekotzat jotzen da beste jarduerak batzuei ekitea badiaren barruan; horregatik, proiektuan jaso da aurrekontu zuzkidura, zeinak sostengua emango dion aipatutako xedea lortzeko badiako udalerriekin batera lanean jarraitzeko konpromisoari.

En este marco, el proyecto de presupuestos para el ejercicio 2016 contempla en primer lugar la dotación para la ejecución de inversiones regeneradoras en la bahía de Pasaialdea, a fin de finiquitar los compromisos adquiridos en el año 2009. Sin embargo, dado que se constata que las actuaciones en desarrollo son insuficientes para alcanzar ese objetivo de regeneración, se considera imprescindible emprender nuevas actuaciones dentro del marco de la bahía, por lo que se ha recogido también en el proyecto la dotación presupuestaria que dé soporte al compromiso para continuar trabajando en pos de dicho objetivo junto con los municipios de la bahía.

## 21 PROGRAMA. PLANGINTZA ETA LURZORUAREN ETA ONDAREAREN KUDEAKETA

Hasteko, programa honi dagokio Foru Aldundiaren lurzoruari buruzko politika definitzea eta pixkanaka ezartzea. Hori lortzeko, kontuan hartuko da, batetik, Herri Lurren Ondareari buruzko Legeko helburuak bilatzea (Gipuzkoako hiri eta lurralde garapena erraztea eta ekimen publikoko ekintzetarako lurra eskuratzea), eta, bestetik, politika hori aurrera eramateko Aldundiak izan ditzakeen eta balia ditzakeen tresna guztiak erabili ahal izatea.

Bestalde, programaren bidez kudeatuko dira lurzorua eskuratzeko behar diren desjabetze espedienteak, Foru Aldundiko departamentuek eta BIDEGI foru sozietate publikoak gauzatu beharreko azpiegiturak eraikitzeari ekiteko.

Azkenik, ondarearen kudeaketarekin loturiko jarduerari dagokionez, jarduera hauek azpimarratu behar dira: foru zerbitzuetarako beharrezkoak diren hainbat lokal eta lursail eskuratzeko prozesuak garatzea; ondasun higiezinak besterentzeko espedienteak bultzatzea eta horiek izapidetzea; Foru Aldundiaren higiezinei buruzko lagapen-espedienteak, errentamen-duak, afektazioak eta adskribapenak, hiri-gintzako espedienteetan eginiko eskuhar-tzeak eta ondareari loturiko beste zenbait ope-razio; eta Foru Aldundiaren Ondare-inbenta-rioa etengabe eguneratzea, bai edukiari dago-kionez bai pixkanakako digitalizazioari dagokienez.

## PROGRAMA 21. PLANIFICACIÓN Y GESTIÓN DEL SUELO Y PATRIMONIO

A este programa, le corresponde, de entrada, la definición e implementación progresiva de la política de suelo de la Diputación. Deberá contemplar, con tal fin, tanto la persecución de los objetivos establecidos en la Ley de Patrimonios Públicos de Suelo -facilitar el desarrollo urbano y territorial de Gipuzkoa y disponer de suelos para actuaciones de actividad pública-, como la posibilidad de utilización, a tales efectos, del conjunto de los mecanismos de que puede disponer y valerse la Diputación para el desarrollo de tal política.

Por otra parte, desde este Programa se gestionarán los expedientes expropiatorios necesarios en orden a la adquisición de suelo para acometer la construcción de las infraestructuras a ejecutar tanto por los distintos departamentos de la Diputación Foral, como por la Sociedad Pública foral BIDEGI.

Finalmente, respecto a la actividad relacionada con la gestión del Patrimonio, caben destacar las siguientes actuaciones: desarrollo de procesos de adquisición de diversos locales y terrenos necesarios para los servicios forales; impulso y tramitación de expedientes de enajenación de bienes inmuebles, tramitación de expedientes de cesión, arrendamiento, afectación, adscrip-ción, intervención en expedientes urbanís-ticos, y otras operaciones patrimoniales relativas a los inmuebles y otras propiedades de la Diputación; y la permanente actualiza-ción del Inventario del Patrimonio de la Diputación, tanto en relación con su conte-nido como con su progresiva digitalización.

## 22 PROGRAMA. LURRALDEAREN ANTOLAKETA

Programa honi dagokio Aldundiak hirigintzako espedienteak aztertu eta ebazteko duen eskumena betetzearren, departamentuari dagokio espedienteok aztertzea eta, ondoren, ebazteko proposamena organo eskudunari aurkeztea, bultzatuz, ahal den neurrian, datuak eta artxiboa tratatzeko prozedura digitalen erabilera.

## PROGRAMA 22. ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

A este programa le corresponde, por un lado, analizar y resolver, en nombre de la Diputación Foral de Gipuzkoa, elevando propuestas con tal objeto al órgano competente, los diversos expedientes urbanísticos, impulsando, en la medida de lo posible, la utilización de procedimientos digitales de tratamiento de datos y archivo.

Halaber, programa honetan Departamentuak garatzen jarraituko dituen lan alor guztietatik hauek hartzen dituena: hirigintzaren eremuko lana; lurralde antolaketarako mekanismo lehen ezarritakoak nahiz berriak sustatzeko eta erabiltzeko lana; eta Gipuzkoako datu espazialen azpiegitura prestatu eta Aldundi osoaren eta, oro har, gipuzkoar gizartearen esku jartzeko lana.

Gipuzkoarena eta Gipuzkoarentzako izango den lurralde eredu bat definitzeko eta arian-arian abian jartzeko, programa honen bitartez departamentuak era proaktiboan parte hartuko du EAEan ezarrita dauden antolamendu bitarteko guztietan. Era berean, beharrezkoa baldin bada, bitarteko berriak ere jarriko ditu martxan helburu hori betetzeari begira, hain zuzen ere Aldundiko gobernu taldeak gizarteari proposatzen ari zaion Gipuzkoako Proiektuaren lurralde ikuspegia definitzeko eta inplementatzeko aitzindaritza betez. Horrek dakar departamentuak partaidetza aktiboa eduki behar duela Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen idazketan eta eztabaidan, bai eta orain dauden edo aurrerantzean sor litezkeen gainerako mekanismoetan ere.

## 23 PROGRAMA. ARKITEKTURA

Programaren barruan, Departamentuak, Arkitektura Zerbitzuaren eskutik, laguntza eta aholkularitza teknikoa eskaintzen die hala eskatzen duten departamentuei, Foru Aldundiaren eraikinak egiterakoan eta berritzerakoan. Halaber, udalei eta beste erakunde publikoei emaniko laguntzen eta diru laguntzen programak jarraitu eta kontrolatuko ditu, eraikuntza eta urbanizazio lanen proiektuak idatzi eta gauzatzera bideratutakoak, alegia. Era berean, programa horren barruan Arkitektura Zerbitzuaren zeregina izango da hauek mantentzea, zaintzea eta arkitektura aldetik zaharberritzea: Foru Aldundiaren Jauregia eta Aldundiaren ondareko beste higiezin batzuk, eta dagozkion departamentuen eraikinak.

Asimismo en este programa se incluyen las labores que el Departamento va a continuar desarrollando en el campo del urbanismo, de la promoción y utilización de los mecanismos, establecidos y/o nuevos de ordenación territorial, de elaboración y de la puesta a disposición de la Diputación en conjunto, y de la sociedad guipuzcoana en general, de una Infraestructura de Datos Espaciales de Gipuzkoa.

El Programa participará, también, de forma proactiva, en el conjunto de los mecanismos de ordenación establecidos en la CAPV. Impulsará, también, en su caso, la puesta en marcha de nuevos mecanismos que persigan dicho objetivo, procurando liderar la definición e implementación de la perspectiva territorial del proyecto de Gipuzkoa que el actual equipo de la Diputación propone a la sociedad guipuzcoana. Esto conllevará la participación activa en la elaboración y discusión de los Planes Territoriales Parciales, Planes Territoriales Sectoriales y demás mecanismos, diseñados y desarrollados, o a diseñar y desarrollar, con tal fin.

## PROGRAMA 23 ARQUITECTURA

En el marco del Programa, el Departamento continuará prestando, desde el servicio de Arquitectura, la asistencia y la asesoría técnicas que se le requieran desde otros Departamentos en orden a la construcción y rehabilitación de edificios propios de la Diputación Foral; así como, el seguimiento y control de los programas de ayudas y subvenciones, a Ayuntamientos y otros entes públicos, que se materialicen en la redacción de proyectos y ejecución de obras de edificación y urbanización. En este mismo programa el Servicio de Arquitectura atenderá las necesidades de mantenimiento, conservación y rehabilitación arquitectónica del Palacio Foral de la Diputación y otros inmuebles del patrimonio de la Diputación y de los edificios multidepartamentales, que le correspondan.

05 Departamentua MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

Departamento 05 DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak / Programas | LANGILEAREN GASTUAK 1 GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2 G. CORR. EN BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK/ 3 GASTOS FINANCIEROS | OHIKO DIRU LAG. ETA TR 4 TRANSFEREN. Y SUBV.CORR | INBERTSIO ERREALAK/ 6 INVERSIONES REALES | KAP. DIRU LAG.ETA TRA 7 TRANS Y SUB DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK./ 8 ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK./ 9 PASIVOS FINANCIEROS | Aurrekontu Guztira / Total Presupuesto |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01.Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketako Zerbitzu Orokorra<br>Servicios Generales de Movilidad y Ordenación del Territori | 997,63 | 998,58 | 0,00 | 0,00 | 48,51 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2.044,72 |
| 10.Garraioaren Antolamendua<br>Ordenación del Transporte | 1.118,07 | 2.157,31 | 0,00 | 33.657,05 | 283,14 | 237,91 | 0,00 | 0,00 | 37.453,47 |
| 11.Bizikleta bideak<br>Vías ciclistas | 59,76 | 120,00 | 0,00 | 15,00 | 2.429,62 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2.624,38 |
| 12.Donostialdeko metroa<br>Metro de Donostialdea | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 400,00 | 0,00 | 0,00 | 400,00 |
| 20.Pasaialdeko Antolaketa eta Sustapena<br>Ordenación y Promoción de Pasaialdea | 0,00 | 50,00 | 0,00 | 0,00 | 200,00 | 7.627,08 | 0,00 | 0,00 | 7.877,08 |
| 21.Plangintza eta Lurzoruaren eta Ondarearen Kudeaketa<br>Planificación y Gestión del Suelo y Patrimonio | 973,07 | 590,26 | 0,00 | 0,00 | 2.325,59 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 3.888,92 |
| 22.Lurraldearen Antolaketa<br>Ordenación del Territorio | 906,89 | 0,00 | 0,00 | 30,00 | 427,00 | 300,00 | 0,00 | 0,00 | 1.663,89 |
| 23.Arkitektura<br>Arquitectura | 940,48 | 700,51 | 0,00 | 0,00 | 1.097,08 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2.738,07 |
| **Departamentua Guztira<br>Total Departamento** | **4.995,90** | **4.616,65** | **0,00** | **33.702,05** | **6.810,94** | **8.564,98** | **0,00** | **0,00** | **58.690,52** |

